

2007ko urriaren 30ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

### EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.-2.007KO URRIAREN 9KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 3.- 2.008KO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA
- 4.- UDAL ORDEZKARIEN DIETAK ERREBISATZEA.
- 5.- INBENTARIOA EGUNERATZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA.
- 6.- ZABALE TXIKI ETA LARDIKO HITZARMENAK ESKRITURATZEKO ALKATEARI BAIMENA EMATEA.
- 7.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.
- 8.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA
- 9.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 10.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 11.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko urriak 24.

ALKATEA.

## **2.007KO URRIAK 30.**

### **OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

**ALKATEA  
ZINEGOTZIAK:  
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.  
Miren Aburuza Alkorta.  
Josu Amilibia Alsua.  
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.  
Iker Iturrioz Lekuona.  
Ainara Iturrioz Lekuona.

**Bertaratu gabea:**

Iñor ez.

**IDAZKARIA:**

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko urriaren hogeita hamarreko hogeitau ordu eta hamar minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

### **LEHENENGO PUNTUA: 2.007KO URRIAREN 9KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak 2007ko urriaren 9ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotzietan aho batez onartzen dute.

### **BIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Jon Ander Elduairen Madariaga Jaunari Adunako ordezkoko arauen 2. eremuko UEU 2.3 unitateko lursail batean eraikitako etxebizitzaren habitabilitate baimena ematea (96/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Juan Jose Aburuza Otegi Jaunari Adunako Olatza baserriko sailetan, baserri azpian duten sailetan zenbait lan egiteko baimena ematea (97/2007 Alkatetza Ebazpena):

3.- Mirari Garmendia Gauna Andereari Herri Eskolaren izenean, Udaletxearen lokala erabiltzeko baimena ematea (98/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Alkatearen funtzioen delegazioa Alkateordearengan (99/2007 Alkatetza Ebazpena):

5.- Adunako Hiri Antolaketarko Arauetan mugatutako 1.8 HEA eremuan ondasun eta eskubideen premiazko okupazioa deklaratzeko (100/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Herriko festen barruan jubilatuen bazkarian arituriko trikitilariei 350 ordaintzea (101/2007 Alkatetza Ebazpena).

7.- Construcciones Trati, S.L-ri Adunako H.I.B. 1.5-6 eremuan 16 etxebizitza, garaje eta trastelekuak eraikitzeko habitabilitate baimena ematea (102/2007 Alkatetza Ebazpena).

8.- Pilar Ramos Andereari 6023-CBH ibilgailuari dagokion 25,77 € itzultzea (103/2007 Alkatetza Ebazpena).

9.- Adunako Udalaren jabetzako lursail bat esleitzeko lehiaketara aurkezturikoei behin behineko fidantza itzultzea (104/2007 Alkatetza Ebazpena).

10.- Bake Epaitegirako gastuetarako armario bat erosteko eskaera egitea (105/2007 Alkatetza Ebazpena).

11.- Xabier Aramburu Irazu Jaunari Construcciones Pagamuño, S.L-ren izenean, Bulandegi Industrieguneko 4. zenbakiko pabiloian egokitze lanak egiteko baimena ematea (106/2007 Alkatetza Ebazpena).

12.- Lizarrekari 2007ko ekainaren 19an aurkezturiko idatzian aipatzen diren obrak egiteko baimena ematea (107/2007 Alkatetza Ebazpena).

13.- Adunako 1.8 unitateko desjabetzapen balio justuari buruzko espedientearen barruan, espedientea Epaitegira bidaltzea (108/2007 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:**  
**2.008KO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA.**

Udalbatza osatzen duten zazpi korporazio kideetatik bertaratutako zazpiek eta beraiek gehiengo absolutu legala osatzen dutelarik, aho batez, 2008 urterako ondorengo tasa eta zergen tarifak aldatzeko erabakia hartu dute, aldatu ez diren tasa eta zergen zenbatekoa ere aipatzen delarik:

**1.- ZERGA:**

1.1.ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.

1.1.1.LANDA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA- 0,60%

1.1.2 HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA-

a). HIRITARRA: 0,18%  
b). INDUSTRIALA: 0,24%

1.2. TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Potentzia eta ibilgailu mota.

A) Ibilgailuak:

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	25,77
9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	58,86
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	112,95
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	133,93
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	172,20
20 zaldi fiskaletik gorakoak	207,69

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	142,00
21-50 plaza bitartekoak	202,94
50 plaza baino gehiagokoak	252,42

C) Kamioiak:

1.000 Kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	72,26
1.000- 2.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	142,00
2.999- 9.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	202,94
9.999 Kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	252,42

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	30,06
16-25 zaldi fiskalera bitartekoak	47,49
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	142,00

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak:

750kg-tik 1.000kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	30,06
1.000- 2.999 Kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	47,49
2.999 Kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak.	142,00

F) Beste ibilgailuak:

Ziklomotoreak	7,70
125 z.k. bitarteko motozikletak	7,70
125-250 z.k.ko motozikletak	13,01
250-500 z.k. ko motozikletak	26,00
500- 1.000 z.k.ko motozikletak	51,94
1.000 z.k. baino gehiagoko motozikletak	104,68

1.3. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA 1,80%

1.4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA:

Ondoren aipatzen diren tasa eta hobariak onartu dira:

1.- Industriak eta komertzioen (sagardotegiak barne) kasuan: %4.

2.- Etxebizitzak:%3.

3.- Laborantza ustiapenera lotuta dauden landatar etxebizitzak: %2.

4.- Laborantza ustiapenerako beharrezkoak diren instalazioak: %95eko hobaria izango dute.

5.- Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzeko obratan %95eko hobaria onartuko da. Beti ere, Ordenantza fiskal hau indarrean sartzen denean eraikita dauden etxebizitzatan egiten diren instalazio hauen obregan izango da aplikagarri hobaria eta ez obra berri edo eraikin berriengan.

6.- %90 eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean. Beti ere, Ordenantza fiskal hau indarrean sartzen denean eraikita dauden etxebizitzatan egiten diren instalazio hauen obregan izango da aplikagarri hobaria eta ez obra berri edo eraikin berriengan.

Gainera, kitapena egiteko gutxienezko kantitatea 6€tako izango da.

## 1.5. HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

- a). 1 etik 5 urtera: 2,6
- b). 10 urte arte: 2,4
- d). 15 urte arte: 2,5
- e). 20 urte arte: 2,6

Karga-tipoa: %10,00

## 2.- TASAK.

### 2.1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASA

2.1.1.- GASAREN KONESIOA 1.040

#### 2.1.2.- UR HORNIDURA ZERBITZUA.

##### A) Etxe Zerbitzua:

- 20 m <sup>3</sup> raino, hiruhilabeteko	4,70
- 20 tik 80 m <sup>3</sup> raino, m <sup>3</sup> gatik	0,35
- 80 m <sup>3</sup> baino gehiago, m <sup>3</sup> gatik	0,49
- Kontagailuaren akura, hiruhilabeteko	1,92
- Ur hartzeagatik	77,18

##### B) Industri Zerbitzua:

- 20 m <sup>3</sup> raino, hiruhilabeteko	10,62
- 20 tik 100 m <sup>3</sup> raino, m <sup>3</sup> gatik	0,93
- 100 m <sup>3</sup> baino gehiago, m <sup>3</sup> gatik	0,94
- Kontagailuaren akura, hiruhilabeteko	2,34
- Ur hartzeagatik	125,84

##### C).Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren azpiegituraren finantzaketa:

-Etxeko baliatzaileek	0,159
-Etxeko ez diren baliatzaileek	0,307

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak.

Gutxieneko kontsumoaren gaineko hobaria. Baldin eta famili unitatearen diru-arrera gordinak 2007 ekitaldian ondorengo eremuetan egon baldin badira:

Famili kideak	< gutxienezko profesioarteko soldata (g.p.s)	g.p.s.< %10	g.p.s.< %20	g.p.s. < %30	g.p.s < %40	g.p.s. < %50	g.p.s < %60
1-2	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-	-
3	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-
4	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-
5	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %
6	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %
7	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %
8 +	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %

Bete beharreko gainerako baldintzak ondorengoak dira:

- Famili unitateko kide guztiak Adunako udalerrian erroldatuta egotea.
- Famili unitateko inork Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea .

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Famili unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Famili unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldatze ziurtagiria.
- Famili unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Famili unitatearen kide bakoitzak dituen ondasun higiezonei buruz Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.
- Famili unitateko kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Azken errenta aitorenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria. Azken ekitaldi ekonomikoan izandako diru-sarrerak justifikatzen dituzten agiriak.

## 2.1.2.- ESTOLDERIA ETA ZABOR BILKETA ZERBITZUA.

- |   |        |
|---|--------|
| - Etxebizitzak, urtean                      | 31,72  |
| - Taberna, komertzioak eta enpresak, urtean | 135,20 |

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak.

Gutxieneko kontsumoaren gaineko hobaria. Baldin eta famili unitatearen dirusarrera gordinak 2007 ekitaldian ondorengo eremuetan egon baldin badira:

Famili kideak	< gutxienezko profesioarteko soldata (g.p.s)	g.p.s.< %10	g.p.s.< %20	g.p.s. < %30	g.p.s < %40	g.p.s. < %50	g.p.s < %60
1-2	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-	-
3	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-	-
4	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %	-
5	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %	25 %
6	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %	50 %
7	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	75 %
8 +	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %

Bete beharreko gainerako baldintzak ondorengoak dira:

- Famili unitateko kide guztiak Adunako udalerrian erroldatuta egotea.
- Famili unitateko inork Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Famili unitateko kide guztien NAN fotokopia.
- Famili unitatea osatzen duen kide bakoitzaren erroldatze ziurtagiria.
- Famili unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Famili unitatearen kide bakoitzak dituen ondasun higieziinei buruz Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako ziurtagiria.
- Famili unitateko kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Azken errenta aitorenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria. Azken ekitaldi ekonomikoan izandako dirusarrerak justifikatzen dituzten agiriak.

### 2.1.3.- ESTABLEZIMENDUA IREKITZEAGATIKO TASA:

- |  |     |
|--|-----|
| - Etxeetan egingo den gas instalazioa-                           | 175 |
| - Komertzio, biltegi eta tabernetara egingo den gas instalazioa- | 175 |
| - Komertzio, Taberna, biltegi ez indus 100m2 tik behera          | 405 |
| - Jatetxeak eta Sagardotegiak                                    | 570 |
| - Industriak, biltegiak eta supermerkatuak                       |     |
| - 500 m <sup>2</sup> rainoko azalera                             | 780 |

- 501tik 1.000 m2ra	1.170
- 1.001 tik 5.000 m2ra	1.770
- 5.000 m2 gorakoak	2.445

#### 2.1.4.- LURZORUARI ETA HIRI ANTOLAKETARI BURUZKO LEGEAK EXIGITUTAKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEA.

- Zatikako Planak, Plan Bereziak, Hiriztatze Proiektuak eta Zehaztasun Azterketak bideratzea	2.390
- Beste hirigintza ekitaldiak	1.455
- Konpentsazio proiektuak	275
- Errepartzelazio proiektuak	275
- Hirigintza galderak	25
- Segregazio baimenak	55
- Lehen okupazioko baimenak	55

#### 2.2.UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK TASA.

2.2.1.- LINEA ELEKTRIKOAK HODIAK ETA GALERIAK ARGINDAR, UR, GAS EDO BESTELAKO ISURKINAK GARRAIATZEKO, BAI ETA LINEEN ZUTOINAK, KABLEAK, PALOMILA, AMARRATZE, BANAKETA ETA ERREGISTRO KAXAK, TRANSFORMADOREAK, ERRAILAK, BASKULAK, SALMENTA AUTOMATIKORAKO APARAILUAK EDOTA KALEETAN EDO UDALAREN HERRI JABARIKO BESTELAKO TERRENOETAN EZARTZEN DIREN ANTZEKO ELEMENTUAK.

Ateria osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lur, lurrazpiko edo lurgainaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatiko tasa aipatu enpresek udal barrutian urtean eskuratzen dituen fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

#### 2.2.2 FRONTOIA ERABILTZEAGATIKO TASA

Udal pilotalekuaren argiatiko tasa 3€ fitxako ezartzen da

Bestalde, aipaturiko zerga eta tasen Ordenantzen testu bateratuak ere onartzen dira.

**LAUGARREN PUNTUA:  
UDAL ORDEZKARIEN DIETAK ERREBISATZEA.**

Ikusirik 2.003ko uztailaren 1eko Plenoan, korporatiboek, Udaletxetik kanpoko bilera bakoitzeko eta Udaletxe barruko Pleno, Batzorde eta bilera bakoitzeko 9 euro kobratzea erabaki zela.

Ikusirik Alkateak Udal Ordezkariek bilera bakoitzeko 10 kobratzeko proposamena luzatu duela.

Udalbatzak, aho batez, 2.007ko azaroaren 1etik aurrera, zinegotziek bilera bakoitzeko 10€ kobratzea erabaki du.

### **BOSTGARREN PUNTUA: INBENTARIOA EGUNERATZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA.**

Adunako inbentarioa eguneratzeko ERAIN eta Araudi, S.L-k 2.007ko urriaren 23an aurkezturiko proposamena aurkeztu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 9.000 €-tako (BEZa barneratu gabe) proposamena onartzea erabaki du, baldintzak proposamenean aipatzen direnak direlarik. Lan honek 2 xede nagusi izango ditu: batetik, inbentarioaren eguneratzea orokorrean eta bestetik, herri bideen inbentarioa.

Aldi berean, udal inbentario hau legeak dioen bezela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da jendea jakinaren gainean egon dadin.

### **SEIGARREN PUNTUA: ZABALE TXIKI ETA LARDIKO HITZARMENAK ESKRITURATZEKO ALKATEARI BAIMENA EMATEA.**

Ikusirik 2.007ko martxo eta apirila bitartean, Adunako Udala eta Zabale Txiki eta Lardiko terreneen zenbait jabeekin hitzarmenak sinatu zirela.

Ikusirik gaurko datam, terreno hoiek eskrituratu gabe daudela.

Udalbatzak, aho batez, Adunako Udalak Zabale Txiki eta lardiko terreneen jabeekideekin sinaturiko hitzarmenak eskrituratzeko Alkateari baimena ematea erabaki du.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- ANV-k Espainiar Gobernuak eta PSOE-k euskal independentismoaren aurkako eraso bortitzaren inguruan aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

a). Udal honek Espainiar estatuari eta PSOERI mezua zuzena helarazten dio: Euskal independentismoa eta Euskal Herriaren aurkako erasorik ez. Hortaz, udal honek urriaren 4an Espainiako poliziak Seguran egindako atxiloketak irmoki salatzen ditu eta

kartzelaraturtako 17 militante abertzaleen berehalako askatasunarekin batera independentismoaren aurkako kriminalizazioa eta jazarpenari amaiera ematea exijitzen du.

b). Udal honek Espainiar Estatuan demokraziarik ez dagoela eta euskal herritarren eskubideak egunero urratuak direla salatzen du. Horregatik errepresioaren aurrean jarrera tinkoa hartuko du bere ondorio guztiei aurre egiteko prestutasunez.

d). Udal honek argi adierazi nahi du: herri honek pairatzen duen gatatzaren irtenbidea ez dago Espainiar Konstituzioan edo Estatuaren erreforman, ez dago sasi-irtenbiderik. Herri honek behar duena marko demokratiko bat da. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan bizi dugun herritarrei gure etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea zor zaigu. Proiektu politiko guztiak, independentzia barne, bideragarriak egingo dituen marko batetan dago gatatzaren konponbidea.

e). Udal honek eraso hauen aurrean deituak izan diren mobilizazio guztietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

2.- ANV-k Abiadura Handiko Trenaren inguruan aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

Adunako udalbatzak Abiadura Handiko Trenaren Proiektuaren aurkako jarrera agertzen du, besteak beste ondorengo arrazoiengatik:

- Proiektu hau ez dago Euskal Herriaren ikuspegitik pentsatuta eta ondorioz ez du gure lurraldea batera kohesionatu eta egituratzen.
- Egitasmo hau gauzatuko balitz, inpaktu ekologiko itzela eragiteaz gain, eragin oso bortitza izango luke bai gizarte eremuan, baita lurralde egitura eta ekonomian ere. Besteak beste, diru publikoaren xahutze ikaragarria suposatuko luke, urte askotako aurrekontuak baldintzatuz eta behar sozialak soluziobiderik gabe utziz.
- Inpaktu hauek gainera ez ditugu gaur egun bakarrik nozituko, etorkizuneko belaunaldien bizkar botako baititugu proiektu honen kosteak.
- Etorkizuneko Euskal Herriaren egituran eta gizarte eremuan hain eragin garrantzitsua duen azpiegitura izanik, ez da behar bezalako informazio, eztabaida eta erabakitze prozesu parte hartzailearik sustatu.
- Udalerriak beraiek ere baztertuak izan dira eta egitasmoa beren iritzi eta borondatearen bizkar garatu dute.

Hala, Adunako udalbatzak, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Garraio eta Herri Lan Sailei nahiz Espainiako eta Frantziako Sustapen Ministerioei egitasmoaren inposaketa albo batera uzteko exijitzen die. Halaber, egitasmoaren inguruko ezinbesteko eztabaida eta erabakitze prozesu herritarra abiatu eta gauzatu artean proiektua bertan behera uzteko deia egiten die.

Adunako udalbatzak, bere aldetik, Adunako herritarren ordezkari den heinean, egitasmo antiekologiko eta antisozial hori gelditu eta aipatu eztabaida eta erabakitze prozesua bultzatzeko ahalegin guztiak egiteko konpromisoa hartzen du. Zehazki, udalbatza honek:

- AHT egitasmoaren inposaketa galarazte aldera, bere esku diren bitarteko administratibo guztiak baliatzeko konpromisoa hartzen du.
- Administrazioei AHT-ren egitasmoaren inguruko informazio egiazko eta objektiboa zabal dezaten exijitzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, bere esku dagoen guztia egingo du informazio hori eskuratu eta herritarren esku jartzeko.
- Adunako herritarrek egitasmoaren inguruan beren hitza adierazi ahal izan dezaten beharrezko liratekeen bitartekoak jorratzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, borondate hori, behar den instantzia guztien aurrean aldarrikatu eta defendatuko du.

\* Oro har, AHT-ren aurkako herri mugimenduarekin, eta zehazki, AHT-k zuzenean kaltetutako gainontzeko herrietako udalbatza eta zinegotziekin, indarrak batu eta elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen du.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Ikusirik Luis Galarragak II Hitza Tolosaldea txapelketa antolatzeko eskaturiko dirulaguntza, Udalbatzak, aho batez, 400 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

Tolosaldeko Telebista, Galtzaundi, Kontseilua eta Lokarrik aurkezturiko dirulaguntza eskaerak, oraingoz mahai gainean geratzea erabakitzen da.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- ADIR-ek Adunako Irisgarritasun Plana egiteagatik aurkezturiko 11.205,60 €-tako faktura aztertu ondoren , Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- Gipuzkoako Ur Kontsorzioak 2.007ko 2.zatiko azpiegitura finantzatzeko aurkezturiko 6.431,48 €-tako faktura aztertu ondoren , Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea eta ordaintzea erabaki du.

### **HAMARGARREN PUNTUA: ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau erabaki da:

1.- 2.007ko irailaren 29an, Gipuzkoako Ur Kontsorziotik eskualdeko izakera duten Araztegiak jartzen diren udalerrietan, haiek ekonomikoki konpentsatzearen inguruan jasotako idatzia aztertu ondoren, Udalak konpentsazioa lehenengo moduan, hau da, esleipenaren aurrekontuaren %4-a (BEZgabe) kobratzea jakinerazi zien.

Udalak gaia errebisatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

a). Bigarren modua, hau da, likidazioaren aurrekontuaren %4a (BEZ gabe) esleipenaren aurrekontuaren %4aren %60ko aurrerapena kobratzea eta likidatzerakoan, gainontzekoa orduko datuekin eguneratuta.

b). Erabaki hau, Gipuzkoako ur Kontsorzioari jakineraztea.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bat ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.